

Ezkontzeko prestatu beharra al dago?

Ezkondu nahi dutenak hobeto prestatzeko, ikastaro trinko bat egitea proposatu du Elizak. Gai horren inguruan arituko gara sekuentzia honetan.

Ariketa hauek egin ditzakezu:

- Bideo ikusi eta ulermen-galderei erantzun.
- Ezkontzarekin lotutako hitzak erabiliz osatu esaldiak.
- Bideoan entzundako zenbait esaldi osatu.
- Maiztasunarekin lotutako hizkuntz-formak erabili: egunero, hamabostean behin...



<https://labur.eus/6OTEU>



1. Gotzainen proposamena

Espainiako Gotzaien Biltzarrak ezkontzaren gainean egindako proposamen baten inguruan hitz egiten du Euskal Telebistako erreportaje honek. Ikusi bideoa eta erantzun galderi, bideoa ondo ulertu duzun jakiteko. Esaldietako bat ez dute aipatu.

	Egia	Gezurra	Ez dute esan
1. Gotzainak kexu dira ezkonbizitzarako ez delako ikastarorik eskaintzen.			
2. Bizpahiru urteko ikastaroa bi astez behin ematea gomendatu dute gotzainek.			
3. Ikastaroko materiala ez dute gotzainek soilik prestatu.			
4. Dibortzio asko gertatzen ari denez, beste erakunde batzuek ere adierazi dute bikoteak ondo prestatu behar direla ezkondu aurretik.			
5. Harreman sexualak izan aurretik, emazteak zenbait lan egitea proposatu dute, hartara senarrak atseden hartu ahal izateko.			
6. Gotzainen Biltzarrak erabakiko noiz eta nola jarriko duen martxa ikastaroa.			

2. Ezkondu eta ezkongai guztiok ondo bizi nahi

Ezkontzaren inguruan ari garenez, hitz bat baino gehiago entzun dugu bideoan ekintza horrekin lotuta; hemen beste batzuk gehiago dituzu. Aukeratu esaldi bakoitzean txertatzeko hitz egokia.

- | | | | | | | |
|----------|---------|----------|------------|-----------|--------------|-------------|
| ezkontza | ezkondu | ezkongai | ezkonberri | ezkongabe | ezkonbizitza | ezkondutako |
|----------|---------|----------|------------|-----------|--------------|-------------|

1. Azken urteotan, Eliza bidezko **ezkontzak** asko jaitsi dira.
2. Ikastaroko materiala prestatzeko, [] 7 bikotek ere parte hartu dute.
3. Elizak dio [] ondo prestatu behar dutela, elkarrekin bizitzen jarri aurretik.
4. Ospakizunaren ondoren, [] eztei-bidaiara joan ziren.
5. Inkesten arabera, ezkonduak [] baino zoriontsuago bizi dira.
6. Berandu ezkondu bazen ere, [] zoriontsua izan zuen Maddiren ondoan.
7. Amonak beti zioen, berriro jaioko balitz, berriro ere aitonaekin [] zela.



3. Esaldiak osatzen

Segidan dituzu bideoan entzundako 3 esaldi. Osatu esaldiok bideoan entzundakoa zeure erara jarriz. Nahi baduzu, ikusi berriro bideoa (aurreko orrikoa).

1. 20 orduko ikastaroa ez da nahikoa
2. 5-10 urtean ezkontzen erdiak apurtzen dira, eta hori saihesteko
3. Besteak beste, gai hauek lantzen dira ikastaro horretan:

4. Hamabostean behin

Telebistako erreportajea, ikastaroko saioak zer maiztasunez izango lirakeen kontatu dute:

- Bizpahiru urteko formakuntza proposatuko zaie hamabostean behineko saioetan.



Zenbatzailea+izena denean ezin da jarri –ero: **bi astero***, **12 orduero***. Horrelakoetan, **bi astean/asterik/astez** behin ... jarri behar da.

Astean behin etxetik kanpo afaltzen du.

Izenekin jar daiteke –ero: **izena+-ero**

Egunero, orduero... etortzen da.

Galdetzeko, **zenbatean behin/zenbatetik behin/zenbatetan** esan behar da, ez **zenbatero***

Orain hizkuntz forma horiek erabiliko ditugu. Osatu ondo esaldiak ondoko 7 hitz hauek erabiliz:

asteburu	egun	igande	zenbat...	2	4	8
----------	------	--------	-----------	---	---	---

1. Ariketa fisikoa egin behar da.
2. Olinpiadak izaten dira.
3. Antibiotikoak egunean 3 aldiz, hartu behar dira.
4. Elizak dionez, entzun behar da meza.
5. Dietistek diotenez, haragia ez da egunero jan behar, baizik eta astean gehienez.
6. joaten naiz mendira lagunekin.
7. jaten duzue mariskoa?

Komentatu talde txikian ondoko puntu hauek; goiko hizkuntz formak erabil ditzakezu:

Zenbatean behin/Zenbat aldiz...?

- egiten duzue ariketa fisikoa edo kirola?
- joaten zarete mendira?
- joaten zarete urtean oportetara?
- jaten duzue mariskoa?
- ...

Erantzun galdera hauei; saiatu arrazoiak ematen.

- Zer iruditzen zaizue Espainiako gotzainen proposamena?
- Ikastaro bat antolatu beharko bazenute, zer gai jorratuko zenituzkete? Zenbat ordutakoa?

“ Nik matxismoa eta sexualitate landuko nituzke ”

“ Bikotekideen arteko komunikazioa ere garrantzitsua da ”

Azkenean, komentatu denen aurrean zer ondoriotara iritsi zareten.

ERANTZUNAK

1. Gotzainen proposamena


Egia	Gezurra	Ez dute esan
2-3	1-5-6	4

2. Ezkondu eta ezkongai guztiok ondo bizi nahi

1. Azken urteotan, Eliza bidezko *ezkontzak* asko jaitsi dira.
2. Ikastaroko materiala prestatzeko, **ezkondutako** 7 bikotek ere parte hartu dute.
3. Elizak dio **ezkongaiak** ondo prestatu behar dutela, elkarrekin bizitzen jarri aurretik.
4. Ospakizunaren ondoren, **ezkonberriak** eztei-bidaiara joan ziren.
5. Inkesten arabera, ezkonduak **ezkongabeak** baino zorionsuago bizi dira.
6. Berandu ezkondu bazen ere, **ezkonbizitza** zorionsua izan zuen Maddiren ondoan.
7. Amonak beti zioen, berriro jaioko balitz, berriro ere aitonarekin ezkonduko **ezkonduko zela**.

3. Esaldiak osatzen

1. 20 orduko ikastaroa ez da nahikoa **ezkontza iraunkorrek bermatzeko / bikote-bizitza ziurtatzeko / ezkonbizitza sendotzeko**
2. 5-10 urtean ezkontzen erdiak apurtzen dira, eta hori saihesteko **formakuntza gehiago behar da / gehiago prestatu behar dute ezkongaiak**
3. Besteak beste, gai hauek lantzen dira ikastaro horretan: **komunikazioa, fideltasuna edo sexualitatea**



TRANSKRIPZIOA

ESATARIA. Espainiako Gotzainen Biltzarrak argi ikusi du: 20 orduko ikastaroa ez da nahikoa ezkontza iraunkorrak bermatzeko. Gaur Mario Izeta Bilboko gotzainak adierazi duenez, 5-10 urtean ezkontzen erdiak apurtzen dira, eta hori saihesteko formakuntza gehiago behar da.

Hemendik aurrera ezkongaei 2 edo 3 urteko formakuntza proposatuko zaie 15ean behineko saioetan. Ezkondutako 12 bikoterekin elkarlanean prestatu dute ikasbide mardula. Bertan, komunikazioa, fideltasuna edo sexualitatea bezalako gaiak jorratzen dira.

HERRITARRA. Baina hori ez da ikasten kurtsillo batean, Elizako kurtsillo batean.

ESATARIA. Ba aholku mamitsuak ematen hasi dira. Dokumentuaren 1. bertsioak, esaterako, sexu-harremanak izan aurretik, senarrak lan batzuk bere gain hartzea gomendatzen zuen, adibidez, umeak parkera eraman. Horrela emakumeak siesta egin eta deskantsatuta egon ahal izateko. Arratsalde erdirako, baina, paragrafo hori desagertu egin da.

Ikasbide hau, hala ere, Gotzainen Biltzarraren proposamena da, eta elizbarruti bakoitzak erabakiko du hemendik aurrera zer-nolako formakuntza eskatuko dien ezkongaei.

